

OÑATIKO UDALAREN

BIODIBERTSITATEAREN ALDEKO KONPROMISOA

Akordio honen bitartez, Oñatiko Udalak naturak gure gizarte honen ongizaterako eta hobekuntzarako duen benetako balioa aitortu eta adierazi nahi du. Hori dela eta, Oñatiko Udalbatzak gure herriko **natura-ondarea** babesteko, hobetzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartzen du, hau da, biodibertsitatearen galera erabat gelditzeko konpromisoa.

Aurrera begira gure gizarteak dagoen joera honi buelta eman behar dio. Europar Batzordeak onartu duen moduan, nahiz eta Europar Batasunak 2010. urteko muga finkatu biodibertsitatearen galera gelditzeko, ez du lortu. Ondorioz, **Biodibertsitatearen Europar Estrategia** finkatu du 2020. urteari begira, biodibertsitatearen galera erabat gelditzeko asmoz eta, horretarako, gureganatu behar ditugun **6 helburu** nagusi xedatu ditu:

- Hegaztien eta Habitaten Arteztarauak bere osotasunean aplikatzea.
- Ekosistemak eta beraien zerbitzuak zaindu eta leheneratzea.
- Nekazaritzak eta basogintzak biodibertsitatea zaintzeko eta hobetzeko eskaintzen duten laguntza areagotzea.
- Arrantzarako baliabideen ustiapena iraunkortzea.
- Espezie exotiko inbaditzaileen aurka borrokatzea.
- Mundu guztian biodibertsitatearen galera eragozteko asmoz, EBak duen lankidetzaren emendatzea.

Bide horretan aurrera egiteko asmoarekin, Oñatiko Udalak honako **konpromisoak** hartzen ditu:

- a) Bizitzaren oinarriko elementuak babestea: gure airea, ura, lurzorua eta biodibertsitatea, gure bizitzarako ezinbestekoak ditugun zerbitzu eta onurak eskaintzeko moduan jarrai dezaten.
- b) Gure natura-guneak zaintzea, beraien habitaten kudeaketa emendatuz eta basa-bizitza babesteko helburuarekin behar den neurrian egokituz.
- c) Espazio hauen arteko loturak garatzea, herriko azpiegitura berdea sortu eta osatuz, hirigunea eta landa-guneen arteko loturak indartuz.
- d) Gure inguru naturalean sortarazi ditugun kalteak, ahal dugun neurrian, konpontzea.
- e) Basa-bizitzan eragiten dugun presioa gutxitzea, ingurune naturalaren kalitatea bere osotasunean hobetuz.
- f) Natur baliabideen zentzuzko ustiapena bultzatzea.
- g) Naturaren aldeko Herri Itun bat eraikitzea, bere babesa eta hobekuntzarako udalak egin ditzaken ekimenak gizarteratzeko.

Eta horrela, agintaldi honetan Oñatin aurrera eramango diren **ekintzak** hauexek izango dira:

- a) Hiritartze prozesuak lehendik artifizialduta dauden eremuetara mugatzea, lurzoru artifizialduaren hedapena saihestuz.
- b) Oñatiko erreka eta hezeguneak bere onera eramateko ahalegina egitea.
- c) Herri mendiek bete behar dituzten helburuak zehaztea, eta horien arabera, aktuzio egokiak planifikatzea, habitat natural eta bertako espezieen alde eginez.
- d) Natur balio bereziko lursailak eskuratu edo jabeekin akordioak egiteko politika ezartzea.
- e) Nekazal lursailen kontserbazioa indartu, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak eta iraunkorrak bultzatuz.
- f) Naturaren babesaren aldeko herritarren partehartzea bultzatzea, eta bereziki Aizkorriko Parke Naturalaren Patronatoaren dinamizazioa bilatzea.
- g) Aizkorriko Parke Naturalari behin betiko bultzada ematea, beharrezko Kudeaketa Planak idatzi eta aurrera eramatea, ea behingoz benetazko babes eremua bilakatzen den.
- h) Aldameneko herriekin, bai gipuzkoar, bai arabarrekin, koordinatzea, elkarren arteko inguruneen alde lan egiteko eta, ahal den heinean, naturgune garrantzitsuenen arteko loturak ezartzea (Urkiolako PN, Aralarko PN, Urbasako PN, Arabako Lautadako Hezeguneak...)
- i) Euskadiko basoen artean Iturrigorrikoa eredugarria bihurtu, bertako baso-ekosistemaren babesari esker.
- j) Natur Eskolak burutzen duen lanarekin jarraitzea, eta ahal den heinean indartzea, bai Euskadiko eskola-umeen ingurumen hezkuntzan, bai oñatiarren naturarekiko begirunea zabaltzeko baliabide garrantzitsua delako.
- k) Gomistegiko Artzai Eskola bultzatzea, ingurumenarekin bat datorren abeltzantza eredu baten alde eginez.
- l) Beste administrazioekin elkarlanean, fauna eta flora mehatxatuen kontserbaziorako ikerketa eta ekintzekin jarraitzea eta hauek babesteko neurriak hartzea, eta baita ere espezie inbaditzaileen aurkako lana jarraitzea.